

## Intimitatea



### **Intimitatea**

Jatorrizko izenburua: *Intimacy*

Egilea: Hanif Kureishi

Itzultzailea: Harkaitz Cano

Argitaratze urtea: 2008

Argitaletxea: Txalaparta

### MIKEL GARMENDIA

Badira irakurketa batzuk, kontsiderazioak kontsiderazio, irakurri aurretik bezala uzten ez zaituztenak, barruak mugitzen dizkizutenak, eta horiexetakoa dela esango nuke Kureishiren *Intimitatea*. Aitorpen bat dugu izatez, zintzoa bezain mingarria, autobiografia moduan idatzitako fikzioa, nahiz eta egileak berak sekula argitu nahi izan ez duen benetan hala den. Kontuak kontu, irakurleak benetan sinetsiko dio aitorpena kontalariari – fikziozkoa izan ala ez-, eta irakurle bakoitzak izango du bere identifikatze-maila.

Probokatzailea da, nolana ere, eta halaxe bihurtu da hainbat eztabaidaren sorburu. Bada liburuaren literaturtasuna bera ere zalantzan jartzen duenik edo, bestela esanda, papereratutako testigantza edo aitorpen hutsa dela dioenik. Ez dugu hemen ebatziko, noski, literatura zer den eta zer ez. Liburuaren irakurketak utzi digun sentazioaz ariko gara besterik gabe. Zuzena da erabat estiloa, sintaxi lau eta ez korapilatsua. Lexiko mailan ere ez gaitu inola ere hiztegiak baliazera behartzen. Gaia bera da, beraz, zirrara edo efektua sortzen duena. Protagonistak bikotearengandik bereizteko hartu duen erabakia nola hartu duen eta nola gauzatzen duen kontatuko digu zehatz-mehatz baina, batez ere, bere buruarekin izandako borrokaren berri emango digu. Gogor, mingarri, berekoi... hainbat adjektibo entzun eta irakurri ditzakegu aitorkizun honen gainean, baina esan beharra dago, nik uste, muga-mugara iristen bada ere, ez dela zinikotasunean erortzen. Aitzitik, emozioa da gailentzen dena.

Eta, oro har, gaiaren aldetik egiten badu ekarpenik interesagarriena, gai horren barruan berebiziko garrantzia duen kontzeptu bat agertuko zaigu: traizioa. Zilegi al da konnotazio negatiboak dituen jokamolde horretaz baliatzea, irtenbide bat al da traizioa, zer da, azken finean, traizio egitea edo nori egiten diogu traizio? Ez dira, ez, nolana hiko kontuak eta, arestian esan bezala, barruko zerbait ukitzen diote irakurleari.

Harkaitz Cano izan dugu euskarazko bertsioaren egile eta orain arte esandakoengatik (sintaxi soila, sustantiboak, adjektiboak eta abarrak arruntak...) aise sumatzekoa da itzulpen-lanak ez duela, printzipioz, konplikazio handiegirik erakusten. Hona, esate baterako, itzultzen erraz baina egundoko adierazkortasuna duten adibide pare bat, esandakoaren erakusgarri: "Altxatu nahi dudana gona bat da mundua" edota "...adimenaren demokratizazio behartua". Hasi eta buka irakurtzeko moduko bertsioa lortu du, halere.